



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

HERNANIKO UDALA

Akats zuzenketa

2025eko abuztuaren 6an alkate dekretu bidez ondorengoa erabaki da:

2025eko apirilaren 22ko 74 zenbakia duen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Hernaniko Udaleko Lanpostuen Zerrendako eta Plantilla organikoko hainbat plazetako hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarriak argitaratu ziren. Besteak beste, ondorengo lanpostuen oinarriak:

- Kirol Saileko arduraduna.
- Arkitekto tekniko bi lanpostu.
- Ereñotzuko arkitekto teknikoa.
- Zerbitzu Sozialetako arduraduna.
- Modernizazio teknikaria.
- Kirol monitoreak.
- Hainbat sailtako administrarien sei lanpostu.
- Ekonomia eta Ogasun Saileko hiru administrari.
- Idazkaritza Saileko lau adminstrari.
- Hirigintza eta Ingurumen Saileko bi administrari.
- Antolakuntza eta Pertsonal Saileko administraria.
- Lege aholkularia (kontratazioa).

—HHZ koordinatzailea.

—Partaidetzako teknikaria.

Aipaturiko oinarrietan hainbat akats daudela ikusi denez, zuzendu egingo dira.

1. Oro har, aipaturiko oinarrietan, Epaimahai Kalifikatzaileen berri ematen duen xedapeneko «osaera» atalean:

— *Hau esan behar du:*

Osaera. Epaimahaiburua.

Epaimahaiburua:

Hernaniko Udaleko karrerako funtzionario bat edo beste administrazio bateko karrerako funtzionario bat, titular gisa, eta bere ordezkoa.

2. Kirol Saileko arduradunaren lanpostuaren oinarriei dagokienez:

Bederatzigarren xedapeneko «9.3 oposizio-fasea» ataleko «hirugarren ariketa» azpi-atalean:

— *Hau esan behar du:*

Proba bat edo gehiago egingo dira balioesteko izangaiek ba ote dituzten Kirol Saileko arduradun lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak: profesionaltasuna, talde-lana, komunikazioa eta aldaketarekiko erantzun positiboa.

3. Zerbitzu Sozialetako arduradunaren lanpostuaren oinarriei dagokienez:

3.1. Laugarren xedapeneko «4.1. Parte hartzeko baldintzak» atalean:

c) Titulu ofizial edo homologatu hauetako bat edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Gradua-titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea.

3.2. Bederatzigarren xedapeneko «9.3 oposizio-fasea» ataleko «hirugarren ariketa» azpi-atalean:

— *Hau esan behar du:*

Nahitaezkoa eta ez baztertzaila. Ariketa honi 20 puntu emango zaizkio gehienez.

4. Bi arkitekto tekniko lanposturen oinarriei dagokienez:

4.1. Deialdian parte hartzeko baldintzak jasotzen dituen bigarren xedapenean, 182 lanpostuaren ezaugarriak jasotzea falta da.

— *Hau esan behar du:*

Lanpostua: Hirigintzako Arkitekto Teknikoa (LZ 182 zk.).

Eskala: Administrazio Berezia.

Azpieskala: Teknikoa.

Mota: Erdi mailako Teknikaria.

Taldea: A2.

Lanpostu-mailako osagarria: 22.

Berariazko osagarria: 20.815,28 €.

Lanaldia: %100.

Titulazioa: Arkitektura Teknikoan graduatua edo baliokidea.

Hizkuntza-eskakizuna: Irakurmena/Idazmena C1; Entzumena/Mintzamina C1. Derrigortasun-data: 2023/12/20.

4.2. Gaitegi orokorra biltzen duen I. eranskinean:

— *Hau esan behar du:*

26. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioa:

— I. kapitulua. Xedea eta aplikazio eremua.

5. Ereñotzuko arkitekto tekniko lanpostuaren oinarriari dagokienez:

Gaitegi orokorra biltzen duen I. eranskinean:

— *Hau esan behar du:*

26. gaia. 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioa:

— I. kapitulua. Xedea eta aplikazio eremua.

— III. kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak.

6. Partaidetza teknikari lanpostuaren oinarriari dagokienez:

Laugarren xedapeneko «4.1. Parte hartzeko baldintzak» atalean:

— *Hau esan behar du:*

c) Titulu ofizial edo homologatu hauetako bat edukitzea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea: Gradua-titulua, lizentziatura, ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomatua, arkitekto teknikoa edo baliokidea.

Bederatzigarren xedapeneko «9.3 oposizio-fasea» ataleko «hirugarren ariketa» azpi-atalean:

— *Hau esan behar du:*

Proba bat edo gehiago egingo dira balioesteko izangaiek ba ote dituzte Partaidetza teknikari lanpostua betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak: profesionaltasuna, talde-lana, komunikazioa eta aldaketarekiko erantzun positiboa.

7. Antolakuntza eta Pertsonal Saileko administrari lanpostuaren oinarriari dagokienez:

Gaitegi orokorra biltzen duen I. eranskinean:

— *Hau esan behar du:*

14. gaia. Toki Ogasunak. 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa.

— II. tituluko I. kapitulua. Baliabideen zerrendatzea.

— II. tituluko III. kapituluaren 1. sekzioa. 15. artikulutik 18. artikulura, biak barne: Ordenantza Fiskalak.

8. Oro har, lehiaketa faseari dagokionez:

— *Ondorengo esaldiak ezabatzea:*

«Hautaketa-prozesuan izena emateko azken eguna hartuko da gehienezko erreferentziatzat merezimenduak baloratzeko.»

«Erreferentzia izango da beti eskaerak aurkezteko azken eguna.»

9. HHZ koordinatzaile lanpostuko oinarriei dagokienez:

Gaitegi orokorra biltzen duen II. eranskinean:

— *Hau esan behar du:*

15. gaia. Toki Ogasunak. 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa.

— II. tituluko I. kapitulua. Baliabideen zerrendatzea.

— II. tituluko III. kapituluaren 1. sekzioa. 15. artikulutik 18. artikulura, biak barne: Ordenantza Fiskalak.

10. Sei administrari lanpostuetako oinarriei dagokienez:

Gaitegi orokorra biltzen duen II. eranskinean:

— *Hau esan behar du:*

14. gaia. Toki Ogasunak. 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa.

— II. tituluko I. kapitulua. Baliabideen zerrendatzea.

— II. tituluko III. kapituluaren 1. sekzioa. 15. artikulutik 18. artikulura, biak barne: Ordenantza Fiskalak.

11. Kirol monitore lanpostuaren oinarriei dagokienez:

Gaitegi orokorra biltzen duen I. eranskinean:

— *Hau esan behar du:*

15. gaia. Toki Ogasunak. 11/1989 Foru Araua, uztailaren 5ekoa.

— II. tituluko I. kapitulua. Baliabideen zerrendatzea.

— II. tituluko III. kapituluaren 1. sekzioa. 15. artikulutik 18. artikulura, biak barne: Ordenantza Fiskalak.

12. Modernizazio teknikari lanpostuaren oinarriei dagokienez:

Bederatzigarren xedapeneko «9.3 oposizio-fasea» ataleko «hirugarren ariketa» azpi-atalean:

— *Hau esan behar du:*

Proba bat edo gehiago egingo dira balioesteko izangaiek ba ote dituzte Modernizazio teknikari lanpostua betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak: profesionaltasuna, talde-lana, komunikazioa eta aldaketarekiko erantzun positiboa.

Hernani, 2025eko abuztuaren 8a.—Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, alkatea. (5862)